

Kati-Katixa aisialdian

Kaixo, kaixo lagunok! Zer moduz zaudete?

Gaur aisialdiaz hitz egingo dizuet, ondo pasatzeaz! Eta, horretarako, festarik festa ibili nahi duzuenoi hainbat jairi buruzko informazioa emango dizuet, eta, lekuz kanpo ez sentitzeko, nola jantzi behar duzuen ere esango dizuet. Erne, beraz.

Euskal Herrian festa asko eta onak egiten ditugu. Eta, zuek ez dakit, baina niri jairen batera joateko gonbidapena eginez gero di-da animatuko naiz. Herri asko eta asko ezagutu ditut horrela!

Baina asko daude, eta ezagutzen ez dituzuenontzat, niretzat onenak diren hiru jaien rankinga egingo dut. Zaila egin zait erabakitzea, baina ea zer iruditzen zaizuen:

b.

3. postuan: Zapato azule

Ekaineko azken asteburuan, Ondarroan, Zapato azule festa egin ohi dute. Bertan, kamiseta-azoka egiten da eta "Dina Martxa" izeneko bizikleta-martxa, Karibeko uretan desagertu zen Dina Bilbao kirolariaren omenez. Gainera, herriko trikitilariak, bertsolariak, txistulariak, dantzariak... ibiltzen dira jaia alaitzen. Eguerdiko ordu bietan, pregoia ematen dute eta, gauean, kontzertuak izaten dira han eta hemen.

Hori bai, jaiaz gozatu nahi baduzue, kontuan hartu denek jantzi ohi dituztela mahoizko prakak eta blusa urdinak. Oso egun ederra da bai bertakoentzat, eta baita kanpokoentzat ere.

c.

2. postuan: Maritxu Kajoi

Arrakasta handia duen beste festa bat da. Urriko lehen ostiralean Arrasaten ospatzen den txikiteroen jaia. Horrela esaten diote, Errosarioko Ama Birjina, txikiteroen zaindaria, parrokiaren atzealdean dagoen zurezko kutxa edo kajoi batean dagoelako.

Egun horretan, ohitura da dotore jantzita irtetea, eta lepotik zintzilik eskapularioa eramatea. Eskapularioa urtero ezberdina izan ohi da, eta mezu bat izaten du atzealdean.

Unerik garrantzitsuena, arratsaldeko zortzi eta erdietan izaten da. Maritxu Kajoiak mirariren bat egin ohi du orduan, eta festazale guztiak egoten dira egun osoan horren zain. Oso mirari bitxiak egin ohi ditu Maritxuk; adibidez, behin, herriko iturrietatik ardoa aterarazi zuen. A ze poza txikiteroentzat!

Eta lehenengo postuan, onena: Tolosako inauteriak.

Ez dizuet azaldu beharko inauteriak zer diren, ezta? Baina Tolosako inauterietan nola jantzi behar duzuen esango dizuet. Eta zuek esango duzue, ba inauterietan, mozorrotuta joan beharko dugu, ezta? Ba, bai eta ez. Kanpokoak zaretela inork jakiterik nahi ez baduzue, jakin behar duzue Tolosan, inauteriak ostegun gizenarekin hasten badira ere, mozorrotu gabe edo txilaba koloretsua jantzita ibiltzen direla igandera arte. Orduan atera ohi dira karrozak eta tolosarrak hain ezagunak diren mozorro dibertigarriez jantzi ohi dira. Benetan merezi du igande goiza bertan pasatzea, a ze irudimena duten!

Eta festa gehiago ere badaude: Iruñeko sanferminak, Baionako bestak... Baina hiru aukeratu behar nituen!

Eta orain bai, zuen txanda: zein dira zuen festa gustukoena?

Aio, aio, lagunok!